

## a.3 GELAKO OHITURAK: ASTEKO ARDURADUNA

### > Eguraldia eta data



#### - Lanketa

- Eguraldia: Eguraldi-paisaiak eta eguraldi-soinuak

#### Helburuak

- Eguraldia euskaraz esaten ikastea.

#### Prozedura

- Lehenik eta behin, argazki-albumeko irudiak erabiliko ditugu umeei hiztegi berria erakusteko.
- Euren herrialdeetan zein eguraldi egiten duen galdetu. Euskal Herrian orain arte zer ikusi duten esateko eskatu.
- Fitxak banatuko dizkiegu; bakoitzak berea egingo du.
- A fitxan, eguraldi-ikurrak eta eguraldi-paisaiak daude. Umeen lana denak moztea izango da. Gero, B fitxan antolatu eta itsatsi beharko dituzte.
- Talde handian zuzenduko da lana.
- Umeei azaldu: eguraldi-soinuak entzungo dituztela eta, entzuten duten ordenaren arabera, dagokion eguraldi-ikur eta eguraldi-paisaiaren ondoan idatzi behar dutela. Adibidez, lehenengo soinua euria bada bat zenbakia idatzi beharko dute euriaren ikurraren eta paisaiaren ondoan.
- Bukatzeko, talde handian zuzenduko da.

#### Oharra

- Ez daude eguraldi-soinu guztiak. Umeei tranpa egingo diegu. Eurek eguraldi bakoitzeko bat bilatu arren, euriaren hiru soinua daude. Hodeiek eta ostarteek ez daukate soinurik.